

 IKUSMIRA

EUSKAL HERRIA: SEI ARGAZKI ESANGURATSU

Politika, kultura, kirola... Ezin denak hemen bildu, baina honatx printza batzuk

GAUR8



Idoia ZABALETA | FOKU

➤ Korrikan «herri bat gose» eta harro

Irundik Baionara, «inoizko Korrikarik jendetsu eta anbizio-tsuen» egin zen. Garazi Arrularen mezuak aldarrikatzen zuenez, «arrainak ura, eta euskarak ekosistema osoa» behar

du. Eta horretarako, «kontingentzia planik ez: egiazko trantsizioa nahi dugu». Bada, «esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako izanen da, eta guk badakigu sua egiten».



Oskar MATXIN | FOKU

➤ Urdaibai eta eskualdearen defentsan

Guggenheim Urdaibai «makroproiektua» bertan behera uzteko asmoz, urrian manifestazio jendetsua egin zuten Gernikan, Busturialdeko udal ordezkarien gehiengoaren eta

Euskal Herriko erreferente ezagun ugariren babesarekin. Proiektuaren inguruko «inposaketak» salatu eta eskualdeko beharren araberrako plan bat galdegin zuten.



Endika PORTILLO | FOKU

➤ Athleticek Kopa irabazi du

40 urteren ondoren, Athleticek Errege Kopa irabazi zuen apirilean. Ez zuten bultzada faltarik izan, 70.000 zale joan baitziren Sevillara. Gauean bertan eta ondorengo egune-

tan, gogotik ospatu zuten. Tartean, nola ez, gabarra atera zuten, milioi batetik gora herri-tarren aurrean. Ohi legez, elkarrekin “Txoria txori” abes-tuz borobildu zuten festa.



Patxi BELTZAIZ

> Dufau, ordezkari abertzalea Parisen

Euskal Herria Baik ere bat egin zuen Fronte Herritar Berriarekin. Koalizioa bigarren itzulian garaile izan zen Ipar Euskal Herrian, eta 6. hautesbarrutian EHBaiko Peio Dufau hau-

tatu zuten: «Gaurkoa ez da pertsona baten garaipena, ezkerreko pertsona guzien garaipena da, euskaldun guziena, Euskal Herriaren garaipena da», aldarrikatu zuen.



Monika DEL VALLE | FOKU

> Bengoetxea, EHUKo errektore berria

Aurreko errektore Eva Ferreirari nagusitasunez irabazi ostean, hurrengo sei urteetan Joxerramon Bengoetxeak gidatuko du unibertsitatea. Kanpaina dezente lokaztu ostean, parte hartzea nabarmen igo zen sektore guztietan. Errektore berriaren hitzetan, «unibertsitateak irabazi du», eta, bere kanpainako leloari jarraikiz, unibertsitatea «denon artean» eraikitzea da asmoa.



> Alaia Martin, Gipuzkoako txapeldun

Arantzazu Loidik jantzi zion txapela eta argazki esanguratsua osatu zuten. Txapela buuruan, laguntasunaren aldarria egin zuen: «Bihurtu ditzagun lagunak bizitzaren tenplu/ badakitenak zer, noiz, nola eta non galdetu/ entzuten gaituztenak nahiz ta pixkat logaletu/ eta etxe bihurtzen dutenak edozein ezleku/ mendeko hitza bilakatu den hontan mendeku/ disolba dezagun eskuina ta auzoa ezkertu/ egon gaitezen lagunekin hauskor eta inperfektu/ elkarrengandik gertu eta elkarrentzat gertu».

Jon URBE | FOKU